

noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON
Política **Sociedad** Sucesos Unión Europea Mundo Albisteak Deusto

[Noticias de Gipuzkoa](#) » [Actualidad](#) » [Sociedad](#)

Sagardotegien kulturari buruzko lehenengo mapa tematikoa kaleratu da

SARA IBARGUREN
26.02.2020 | 09:05



Sonia Pérez sailburua eta sagardoarekin erlazionatutako elkarteetako ordezkariak, atzo, Donostian.


Lehenengo Sagardomapa kaleratu berri du Euskadi Gastronomiak. Bisitarientzat pentsatuta dago eta 83 sagardotegi biltzen ditu, euskal sagardoaren kultura zabaltzeaz arduratzen diren Sagardoetxeari eta Igartubeiti baserri museoari buruzko informazioaz gain.

"Sagardoaren mundua tradizioa baino zerbait gehiago da Euskadirentzat. Erritua da eta enogastronomia sozializazio eta esperien-tzia paregabe gisa ulertzeko modu bat", azaldu zuen atzo Sonia Pérez Ezquerro Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak Gastronomiako Euskal Anaiartean sagardoarekin erlazionatutako elkarteekin batera egin



Euskadi más y 2 f

El Gobierno
activar si Eus



zuten aurkezpenean. Gogorarazi zuenez, urtero 60 Sagardo Egun baino gehiago ospatzen dira herri desberdinetan eta gaur egun, sagardoaren kulturarekin uztartutako 20 esperientzia baino gehiago eskaintzen dira; gastronomiarekin, itsasoarekin, herriekin eta turismo aktiboarekin lotuta.

"Urtero 800.000 bisitari joaten dira Euskadiko sagardotegietara eta sagardoak hazkunde esponentziala jasan du, bai gure lurraldean eta baita mundu mailan ere", nabarmendu zuen sailburuak. Hori *Ciderlands lovers and makers* proiektuan irudikatzen da: Europako hamar helmuga jasotzen dituen Euskadik bultzatutako sare internazionalan, alegia. "Proiektzio internazional bat da eta gure lurraldera bisitari gehiago ekartzen lagun-tzen digu, gure kulturaz eta tradizioez goza dezaten", azpimarratu zuen Pérezek.



NUEVO OPEL GRANDLAND X

Con su imagen dominante y tecnología de vanguardia, el Grandland X y su versión híbrida enchufable están preparados para añadir emoción a cada día

PATROCINADO POR OPEL

Turismoa erakartzen duten sagardoarekin lotutako beste ekintza batzuk ere gogoratu zituen sailburuak; besteak beste, Sagardo Forum-a, Nazioarteko Sagardo Azoka edo Sagardo Berriaren Eguna. "Turismo departamentuarentzat oso garrantzitsua dira horrelako jarduerak, izan ere, turista gutxiago joaten diren lekuetara eta barnealdeko herrietara haiek erakartzeko balio dute. Gainera, uda sasotik kanpo", esan zuen.

ASTIGARRAGAKO ONDAREA Astigarragan aspaldi hasi ziren sagardogintzaren kultura bultzaten eta gaur egun, inguru hartan sagardotegi ugari daude. Xabier Urdangarin Astigarragako alkate eta bertako Sagardun par-tzuegoaren presidenteak Sagardomaparen aurkezpenean nabarmendu zuenez, Astigarraga eta sagardoa "batera" doaz: "Gogorarazi nahi nuke lehendabiziko Sagardo Eguna Astigarragan egin zela eta aurten 45. urtea izango dela".

Astigarragan sagardogintzaren kultura sustatzeko lana herriko elkarteek, sagardogileek eta herritarrek bultzatu zuten, esaterako, sagardotegietako ondarea biltzeko lana. "Gogora dezagun 60 eta 70eko hamarkadetan sagardotegiak ez zirela gaurkoak. Tresna asko galtzeaz zeuden eta jendeak ikusi zuen balio handia zutela eta ondare garrantzitsua zela", azaldu zuen Urdangarinek.



ES DESGARRADOR DONDE VIVE SONIA FERRER A LOS 42...

¡Increíbles casas de famosos que te dejarán sin palabras!



TAMBIÉN TE PUEDE INTERESAR



¡Volvamos a rodar!

¡Prepara tu moto para disfrutar de la carretera otra vez!



En ING, ¡todo ventajas!

Sin comisiones, sin compromiso y sin letra pequeña...¡no lo dudes más!

- 5. Interi
comu
- 6. Aldun
progr
- 7. Las ve
caen u
- 8. NextS
forma
- 9. Donos
habita
- 10. Ataca
de Alt

Ondorioz, lanean hasi eta Sagardo Egunaz gain, beste ekimen batzuk sortu zituztela azaldu zuen, Sagardoetxea esaterako. Beraz, herritarrentzat sagardogintzaren kultura "txotx denboraldia baino askoz ere gehiago" dela nabarmendu zuen.

Alde horretatik, Sagardomapak dakarren hiztegiari erreferentzia egin zion: "Bere garaian Astigarragan hiztegitxo bat landu zen sagardogintzaren inguruko hitzekin eta mapa horretan bertako hainbat hitz daude", azaldu zuen. Horren bidez, mapa eskuratzen duen edonork sagardogintzaren ondarearekin loturiko hamar hitz inguru ikasteko aukera izango du; besteak beste, *kirikoketa*, *kizkia*, *sagar uzta* edo *txinparta*.

Urdangarinen arabera, azken urte hauetan hainbat erakunde ohartu dira sagardogintzaren garrantziaz eta Sagardomapa horren "erakusle" da. "Espero dugu aurrerantzean ere elkarlanean jarraitu eta horrelako mapa gehiago egin ahal izatea", amaitu zuen Astigarragako alkateak.



CUENTA NÓMINA DE ING ¡TE DA MÁS Y TE PIDE MENOS!

¿Cómo iba a ser la Cuenta NÓMINA del Banco no Banco? Sencilla, transparente y, por supuesto, sin comisiones: Te da tarjetas y transferencias gratis y en el día. Te da 2 días de descubierto gratis. Te da la opción de encender y apagar tus tarjetas. Te da la opción de abrir tu cuenta en 5 minutos. Te da la opción de cerrarla en un clic.

PATROCINADO POR ING

Hemendik aurrera, nahi duenarentzat Sagardomapa eskuragarri egongo da Euskadiko turismo bulegoetan, sagardotegietan eta agen-tzietan.

Sagardomapak sagardoaren munduarekin lotutako 10 hitz baino gehiagorekin osatutako hiztegitxo bat eskaintzen du

Urtero 800.000 bisitari joaten dira Euskadiko sagardotegietara eta sagardoak hazkunde esponenziala jasan du

Noticias relacionadas

Zaporeak recibe casi 5.000 euros para ayudar a refugiados. [Sociedad](#)

Temas relacionados:

Euskadi Gastronomika

Idioma Euskera

Noticia positiva

Sagardomapa

Lo úl

1. Sigue en el C
2. Purifi contra
3. Euska falleci
4. El Mu

AXA Salud protege lo que más importa
La mejor protección totalmente adaptada a ti, en la consulta de tu médico o desde tu casa.

AXA Salud protege lo que más importa
La mejor protección totalmente adaptada a ti, en la consulta de tu médico o desde tu casa.

¿Conoces el Kia Sportage?
Con diseño exterior sorprendente y acabados aún más deportivos en la versión GT Line.

Lo mejor para compartir
Emilio Gutiérrez-Caba siempre elige jamones El Pozo para compartir.

Un hogar seguro
En AXA te ofrecemos un seguro adaptado a tu hogar. Descubre nuestras coberturas.

Revisa tu SEAT gratis
Si vas a disfrutar de todo de nuevo, prepárate.



[HOME](#) [Gipuzkoa](#) [Reala](#) [Cultura](#) [Actualidad](#) [Opinión](#) [Deportes](#) [Economía](#) [Vivir ON](#) [Participación](#)

noticias de Gipuzkoa

Otras webs de Grupo Noticias

Deia
Diario de Noticias
Diario Noticias de Álava
Onda Vasca

Promociones
Publicidad
Suscríbete a Noticias de Gipuzkoa

Suscripción por RSS
Newsletters
Auditada por OJD
Distribución
Trabajos de impresión

© Diario de Noticias-Edición Digital | Avda. Tolosa 23 20018 DonostiaTel 943 319 200

[Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#) | [Cookies](#) | [Política de Privacidad](#)